



Zientzia Astea

Lehiaketaren oinarriak

Matematikari ospetsu baten “erretratu alfabetikoa” egin behar da. Erretratu alfabetiko bat ordena alfabetikoan jarritako hitzen zerrenda bat da, non hitzek (tarteka esaldi laburrez lagunduta) biografia baten oinarrizko elementuak biltzen dituzten.

Matematikari bat aukeratu, eta haren ibilbide edo lanaren berri laburra eman behar da, baina “erretratu alfabetiko” baten moduan; hau da, haren lan eta bizitza ibilbidea deskribatzen duten hitzen (tarteka esaldi laburrez lagunduta) zerrenda bat osatu behar da, ordena alfabetikoan jarrita. Gutxienez, alfabetoaren 20 letra erabili behar dira (27 letra ditu bi hizkuntzetan). “Erretratu alfabetiko2 baten adibidea ikus daiteke esteka honetan: <https://bit.ly/3uWo7Tm>

Euskaraz edo gaztelaniaz idatz daitezke.

Lanak bidaltzea

Lanak pdf formatuan bidaliko dira.

Parte hartzaile bakoitzak nahi beste erretratu alfabetiko bidal ditzake, baina banaka, ez talde gisa.

Lanak posta elektronikoz bidaliko dira helbide honetara: retratoalfa@gmail.com, lehiakidearen izen osoa, helbidea eta harremanetarako telefonoa adierazita. Zalantzak postan bertan argituko dira.

Epea

Izena emateko epea 2021eko azaroaren 5ean amaituko da.

Epaimahaiaren erabakia Zientzia Astearen webgunean emango da jakitera. Irabazten duten lanek antolatzaileek finkatutako sariak jasoko dituzte.